



EBAZPENA, Hezkuntzako sailburuordearena, ikastetxe publikoetako Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakasleek alfabetizazio anitzei buruz ingelesezko berariazko prestakuntza batean parte hartzeko baldintzak ezartzen dituen, hizkuntzen eta beste arlo batzuen irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuak hobetzeko ingelesez.

Hezkuntza Sailaren ildo estrategikoen artean erronka bat dago Europako esparruan 2030erako¹ hezkuntza- eta prestakuntza-arloan ezarritako berrikuntza- eta garapen-printzipioak gure testuinguruaren eta ingurunearen berezko hezkuntza-erronkekin lerrokatzeko. Horrek paradigma-aldaketa garrantzitsua dakar, gaitasunetara bideratuago dagoen hezkuntza eskatzen du, gero eta globalagoak eta kultura aniztasun handiagokoak diren ikaskuntza-ingurune berriei oinarrituz gain.

Eta ikasleek aipatutako oinarrizko gaitasun horiek lortzeko, euskal hezkuntza-sistemako irakasleek gaitasun-profil egokia eduki behar dute, baldintza onenetan bete ahal izateko beren egitekoak eta lanak. Horrela izanda, hezkuntza-arloan eskumena duen sailak bultzatutako du, irakasleak prestatzea eta eguneratzea, bikaintasuna sustatzea eta profesionalen arteko lankidetzaren prozesuak sustatzea.

Kontseilu Europarrak adierazten duenaren arabera, Oinarrizko Hezkuntza² amaitzean ikasleak izan behar dituen oinarrizko zortzi gaitasunetatik bik hizkuntza-komunikazioaren eta komunikazio eleaniztunaren garrantzia azpimarratzen du, eskolako eta eguneroko bizitzako hainbat egoeratan ahoz nahiz idatziz komunikatzeko oinarrizko gaitasunak baitira, baita komunikaziorako eta ikaskuntzarako egoki eta modu eraginkorrean hizkuntza bat baino gehiago erabiltzeko ere. Dimentsio historikoan eta Kultur artekoan dituzten nahien edo beharren arabera gizarteko eta kulturako hainbat testuingurutan kontzeptuak, pentsamenduak, sentimenduak, gertakariak eta iritziak ahoz eta idatziz (entzun, hitz egin, irakurri eta idatzi) ulertzeko, adierazteko, lotzeko eta interpretatzeko trebezian oinarritzen dira gaitasun horiek.

Nazioarteko ikerketek bat egiten dute esatean irakaskuntza hobetu nahi duen edozein ekimen irakasleen mende dagoela, aldaketaren eragile nagusiak baitira; izan ere, hezkuntzaren kalitatearen hobekuntza irakaskuntzaren kalitatearen hobekuntzaren mende dago.

Sail honek arlo horretan egiten dituen ekimenen barruan, atzerriko hizkuntzen irakasleen prestakuntza hobetu dadin hizkuntzak irakasteko eta ikasteko testuinguru eta proposamen eraginkor berrien alorrean, eta Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 71/2021 Dekretuan eta oro har ezar daitezkeen gainerako xedapenetan ezarritakoarekin bat etorritik,

¹ Kontseilu Europarra (2021): KONTSEILUAREN EBAZPENAK Kontseiluaren Ebazpena hezkuntza- eta prestakuntza-esparruan Europa mailako lankidetzarako marko estrategikoari buruz, Hezkuntzarako Europar Esparruari eta harago begira (2021-2030) <https://www.boe.es/doue/2021/066/Z00001-00021.pdf>

² Kontseilu Europarra (2018): KONTSEILUAREN GOMENDIOAK 2018ko maiatzaren 22ko KONTSEILUAREN GOMENDIOA ikaskuntza iraunkorrerako gaitasun giltzarriari buruz (Testu bereizlea EEren ondorioetarako) (2018/C 189/01): [https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/PDF/?uri=CELEX:32018H0604\(01\)&from=SV](https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/PDF/?uri=CELEX:32018H0604(01)&from=SV)



EBAZTEN DUT:

1. artikulua. – Xedea

1.- Deialdi honen xedea da ikastetxeen eta irakasleen eskaera- eta hautaketa-prozedura ezartzea, 10 plaza Lehen Hezkuntzarako eta 10 plaza Bigarren Hezkuntzarako, alfabetizazio anitzei buruzko berriazko prestakuntzan parte hartu nahi dutenentzat: *“Pluriliteracies for Deeper Learning”* Edinburgoko Unibertsitateak antolatuta. Ikastaroaren baldintzak eta ezaugarriak V. eranskinean esplizitatuta daude. Prestakuntza-jardueraren barruan, Edinburgoko Unibertsitateko Moray House School of Education and Sporten egonaldi bat egingo da abuztuaren 28tik irailaren 8ra, biak barne. Era berean, parte-hartzaile bakoitzak, ikasturtean zehar, astean bi eskola-orduko liberazioa izango du prestakuntzarako. Ikastetxeak antolaketa-neurrien bidez hartuko du bere gain Edinburgoko egonaldiaren estaldura.

2.- Xede hori lortzeko, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan horretarako ezarritako aurrekontu-partiden kontura, 175.000 euro erabiliko dira programa garatzeko.

3.- Hautatutako ikastetxe bakoitzari 7.500 euroko aparteko ordainketa egingo zaio hautatutako irakasle bakoitzeko, honako gastu hauei aurre egiteko: ikastaroaren banakako matrikularen ordainketa, Edinburgoko egonaldiko mantenu-gastuak eta joan-etorrien gastuak (EAEn helbidea/aireportua, Eskozian, aireportua/bizilekua eta bizilekua/prestakuntza emateko lekua), 1993ko otsailaren 2ko kalte-ordainei buruzko Dekretuan ezarritakoaren arabera. Gastu horiek deialdiaren 11. artikuluan ezarritako moduan justifikatu beharko dira. Lehen deskribatutako gastua egin ondoren, ikastetxeak gerakin ekonomikoa badu, ebazpen honen bidez deitutako prestakuntzarekin zerikusia duten hizkuntza-proiektuak garatzeko ikasgelako materialak erostea onartuko da.

2. artikulua.- Onuradunak

Deialdi honetan jasotako zuzkiduren onuradun izan ahalko dira curriculum-arloak edo irakasgaiak ingelesez ematen dituzten ikastetxe publikoak, eta ikastetxe horietako irakasleek Edinburgoko Unibertsitatean Pluriliteracies for Deeper Learning ikastaroan parte hartzea proposatu badute, dagokion eskabidea beteta (I. eranskina).

Eleaniztasunerantz programaren B modalitateko edozein ebazpenetan aldez aurretik hautatuak izan diren ikastetxeek izango dute lehentasuna.

2022/2023 *“Pluriliteracies for Deeper Learning”* deialdian hautatutako ikastetxeek parte hartu ahal izango dute, baina programan parte hartzen ari ez diren irakasle baten bidez.



3. artikulua.- Betekizunak

1.- Ikastetxeentzako betekizunak:

1.1.- Ikastetxe eskatzaileek ingelesez eman beharko dituzte curriculum-arloak edo irakasgaiak

2.- Irakasle partaideentzako betekizunak:

2.1.- Ikastetxeak proposatzen duen irakasleak ikastetxean esleitutako behin betiko plaza izan behar du.

2.2 Hautagaiak ingeleseko gutxieneko titulazioa izan behar du, EEEBren B2 mailaren parekoa.

2.3 Ikastetxeak proposatutako hautagaia:

- 2023/2024 ikasturtean ingelesez emateko jakintzagairako irakaskuntzarako ordu-karga izatea
- 2022/2023 ikasturtean ez du parte hartu Pluriliteracies deialdian.

4. artikulua. – Eskaearen aurkezpena

1. Ikastetxeek 2023ko martxoaren 31ra arteko epea, egun hori barne, izango dute eskaera aurkezteko.

2. Eskaria modu elektronikoan aurkeztuko da, eskabide normalizatu bidez, datu guztiak behar den moduan beteta. Eskabide-eredua (I. eranskina) egoitza elektroniko honetan egongo da erabilgarri:
<https://educacion.hezkuntza.net/group/deialdiak/irakasle-egonaldiak-2023>

3. Ikastetxe interesdunak dokumentu bat erantsi beharko dio eskaerari prestakuntza-jardueran parte hartuko duten irakasleen datuekin, I. eranskinean adierazitako ereduarekin bat etorritik, eta bertan adierazi beharko dute ikastetxean zein zeregin esleitu zaizkien irakasle horiei B modalitateko hizkuntza-proiektua garatzeko, eta atzerriko hizkuntzan zein ezagutza-maila eta zein ziurtagiri dituzten.

4. Bi parte-hartzaile proposatu ahal izango ditu ikastetxeak gehienez, lehentasun-hurrenkeraz, titular bat eta ordezkari bat. Irakasle partaideen adostasuna islatuko da eskabidean, berariazko erantzukizunpeko adierazpen bidez. Ikastetxe publiko integralek (IPI) 2 eskabide aurkeztu ahal izango dituzte, bat Lehen Hezkuntzarako eta beste bat Bigarren Hezkuntzarako.

5. Aurkeztutako eskaeran akatsen bat, zehaztasunik ezen bat edo agiriren bat falta dela ohartuz gero, ikastetxe eskatzaileari hamar eguneko epea emango zaio hori zuzentzeko.

5. artikulua.- Parte-hartzaileen aukeraketa

1.- Edinburgon “*Pluriliteracies for Deeper Learning*” ikastaroan parte hartuko duten irakasleen zerrenda zehazteko, baldintzak betetzen dituzten eta adierazitako epean modu elektronikoan aurkeztu diren ikastetxeen eskabideak aztertuko dira. Aurreko ikasturtean Pluriliteracies for Deeper Learning



programan parte hartzeko hautatuak izan diren ikastetxeak plaza libreak geratzen direnean bakarrik hautatu ahal izango dira.

2.- Lehenik eta behin, etapa bakoitzerako (Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza), 3.1 artikuluan ikastetxerako eta 3.2 artikuluan hautagaien zatidun adierazitako baldintzak betetzen dituzten ikastetxe eskatzaileak ordenatuko dira, ikastetxeko hizkuntza-proiektuen B modalitatean parte hartu duten ikasturte-kopuruaren arabera. Lehentasuna izango dute hiru deialditan edo gehiagotan esleipendun izan diren ikastetxeek.

3.- Aurreko puntuan egindako ordenamenduaren ondoren, 2 artikuluan adierazitako deialdietatik 3 edo gehiagotan ikastetxe esleipendunak plaza libre baino gehiago badaude, ikastetxeak eskabidean aurkeztutako irakasleek baremoan (IV eranskina) lortutako puntuazio-ordenaren arabera ordenatuko dira, honako baldintza hauek baloratu ondoren, dagokion dokumentazioak justifikatuta eta II. eranskinean zerrendatuta:

- a. Ikastetxeko Hizkuntzen Batzordea koordinatu du / parte hartu du.
- b. Ikastetxeko B modalitateko beste hizkuntza-proiektu batzuk koordinatu ditu / parte hartu du.
- c. Edukiak ingelesez eman ditu ikastetxean edo beste ikastetxe batzuetan.
- d. Nazioarteko proiektuak koordinatu ditu / parte hartu du.
- e. Gaiari buruzko prestakuntzetan parte hartu du.
- f. Ingelesaren ezagutza-maila EEEBren arabera, eskatutako gutxieneko maila (B2) gainditu ondoren.
- g. "English for Better Teaching" prestakuntzan parte hartu eta gainditu du (alderdi hori ofizioz egiaztatuko da).

4.- Aurreko baremoa ezarri ondoren zentroek proposatutako bi lagun edo gehiagoren artean berdinketa egonez gero, 2022/2023 ikasturtean ikastetxeko hizkuntza-proiektuko B modalitatean ikasle talde gehien duen zentroko pertsona goragoko mailan jarriko litzateke.

5.- Hiru deialditan edo gehiagotan esleipendun izan diren ikastetxeen eskabideak aztertu ondoren oraindik bete gabeko plazak geratzen badira, 2 deialditan parte hartu duten ikastetxeen eskabideak aztertuko dira, 3. eta 4. puntuetan azaldu den bezala. Azterketa hori egin ondoren oraindik betetzeko plazak geratzen badira, deialdi batean esleipendun izan diren ikastetxeen eskabideak aztertuko dira, eta modu berean jokatu da. Ebazpen honetan aipatzen diren deialdiak Eleaniztasunerantz programaren deialdiak dira, eta B modalitateari ematen zaio lehentasuna A modalitatearen aldean.

6.- Arestian deskribatutako ordenamendu osoa amaitu ondoren, plaza libreak geratzen badira, aurreko ikasturtean "Pluriliteracies for Deeper Learning" prestakuntzan parte hartu duten ikastetxeei esleitu ahal izango zaie plaza, beti ere, ikasturte honetan parte hartu ez duen beste irakasle bat proposatuz gero, eta honek baldintzak betetzeko gero. Ikastetxe horiek baremoan lortutako puntuazioaren arabera ordenatuko dira, eta berdinketa gertatuz gero, artikuluan honetako 4. puntuan adierazitako irizpideak erabiliko dira.



7.- Aurreko puntuak hezkuntza-etapa bakoitzerako egingo dira (Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza). Etaparen batean plazak hutsik geratzen badira, beste etapako 10 plazei gehituko zaizkie.

6. artikulua.- Prestakuntzan parte hartzeko hautatutako irakasleen konpromisoak

Hautagai guztiek konpromiso hauek (III. eranskina) bere egiteko konpromisoa hartzen dute:

- Curriculum-edukiak edo arloak ingelesez ematea, prestakuntza-jarduera amaitu eta hurrengo ikasturtean.
- Prestakuntza-jardueraren etapa guztietan aktiboki parte hartzea, dagozkion zereginak burutuz.
- Ikastetxeko hizkuntza-proiektua B modalitatean koordinatzekoa hurrengo ikasturtean (2024/2025), ikastetxeak hala behar izanez gero.
- Hezkuntza Sailak hala proposatzen badio, hurrengo ikasturteetan beste irakasle batzuen aholkulari gisa jardutea. Zeregin horiek egin ahal izateko dagozkion hezkuntza-laguntzeko zerbitzuaren aholkularitza izango du.
- Hezkuntza Sailaren esku jartzekoa egindako material didaktikoak.
- Hezkuntza Sailak gaiari buruz antolatutako prestakuntza- edo dibulgazio-saioetan parte hartzekoa eta bere esperientzia eta/edo egindako materialak partekatzeko prest egotekoa.
- Programa honen 2022/2023ko edizioaren azken jardunaldira joatea; Euskadin (Donostiako Karlos Santamaria aretoan) egingo da 2023ko ekainaren 27an, goiz osoz. Bertaratzea derrigorrezkoa da.

7. artikulua. – Kudeaketa-organoa.

Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritzak kudeatuko du deialdi honetan aurreikusitako zuzkidura ekonomikoak esleitzeko prozedura eta prestakuntzaren garapen egokia.

8. artikulua.- Eskariak aukeratzeko prozedura.

Batzorde batek egingo du onartutako eskarien aukeraketa. Batzorde horrek kide hauek izango ditu:

- Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritzako Irakasleen Etengabeko Ikaskuntzako eta Hobekuntzako Zerbitzuko arduraduna, batzordeburu.
- Hezkuntzarako laguntza-zerbitzuko bi aholkulari, hizkuntza-arloan adituak
- Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritzak izendatutako bi teknikari. Horietako batek batzordearen idazkari-lanak egingo ditu.

9. artikulua. - Prozedura ebaztea

1. Ikaskuntza eta Hezkuntza Berrikuntzaren zuzendariak behin-behineko ebazpena emango du, eta bertan agertuko dira:



- Onartutako eskaerak, ikastetxe bakoitzak prestakuntza espezifikoa plaza bat hartzeko proposatutako irakasleen zerrendarekin.
- Baztertutako eskaeren zerrenda, arrazoia aipatuz.

2. Ebazpena Hezkuntza Sailaren webgunearen bidez jakinaraziko zaie ikastetxe eskatzaileei, eta posta elektronikoki bidez zuzendariari. Hamar egun naturaleko epea izango dute alegazioak aurkeztu ahal izateko, aplikazio elektronikoki berdina erabiliz.

3. Alegazioak aztertu ondoren, Ikaskuntza eta Hezkuntza Berrikuntzaren zuzendariak behin betiko ebazpena emango du, eta eskatzaileei jakinaraziko die aurreko atalean aipatutako bideak erabiliz. Ebazpenak, batetik, irakasleen zerrenda jasoko du, ikastetxearen arabera ordenatuta; eta, bestetik, baztertutako eskaeren zerrenda. Gainera, arrazoiak aipatuko dira. Behin betiko ebazpen horretan bertan deialdiko baldintzak bete arren erreserban geratzen diren hautagai guztiak ordenatuko dira, gerora sortutako bajaren bat goten bada ere.

4. Prozedura ebazteko eta jakinarazteko epea, gehienez ere, sei hilabetekoa izango da. Epe horretan jakinarazpenik eman ezean, eskabideak ezetsi egin direla ulertu ahal izango da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 1eko 39/2015 Legearen 25. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako.

10. artikulua. – Zuzkiduraren ordainketa.

Hautatutako ikastetxeei ordainketa bakarrean egingo zaie zuzkiduraren ordainketa, behin betiko ebazpena argitaratu ondoren, eta dena dela, 2023a amaitu aurretik.

11. artikulua.- Laguntzen justifikazioa.

Hautatutako ikastetxeek justifikatu egin beharko dituzte irakasle partaideen ikastaroko matrikula-gastuak, mantenu-gastuak eta joan-etorrien gastuak egiaztagirien bidez (fakturak, txartelak, etab.).

Joan-etorrien gastuak: EAEn etxetik aireportura, Eskozian aireportutik egonaldiko egoitzara eta egoitza horretatik ikastaroa emango den tokira.

Justifikazio ekonomikoarekin batera, egindako jardueraren memoria bat aurkeztu beharko dute, baita jarduera horren betetze-mailari buruzkoa ere, parte hartu duten irakasleek prestakuntza-jarduerari buruz egindako balorazioa barne, hori guztia ikastaroa amaitu eta hilabeteko epean.

Ikastetxeak libramenduaren zati bat gelako materialak erosteko erabili badu, 1.4 artikuluan ahalbidetzen den bezala, gastu hori ohiko moduan justifikatu behar da (fakturen, tikieta eta abarren bidez), eta horren egokitasuna ikastaroa amaitzean aurkeztutako memorian islatuko da.

**12. artikulua.- Baliabide pertsonalak.**

Hautatutako pertsonen Hezkuntza Sailak esleitutako proiektuaren koordinatzaile baten laguntza izango dute

13. artikulua. – Ziurtagiriak

Ikaskuntza eta Hezkuntza Berritzatzeko zuzendariak ofizioz eta banaka ziurtatuko ditu 120 orduko prestakuntzarekin, hautatutako prestakuntza-ikastaroa egin eta gaitutako irakasleak.

Horretarako, parte-hartzaileek ziurtagiri bat aurkeztu beharko dute, edo, bestela, erakunde emaileak emandako akta, ikastaroan adierazitako zeregin guztiak bete dituelako gaitzat hartu dela adierazten duena, "Case study" delakoa entregatuta eta bertan zehaztutako ebaluazioa gaitututa.

14. artikulua. – Datu pertsonalak.

Ebazpen honetako prozeduretan aurkeztutako eskabideetan eta dokumentazioan agertzen diren datu pertsonalak Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren alorrean eskumena duen zuzendaritzak tratatuko ditu, datuen tratamenduaren "arduradun" gisa. Datu pertsonalen tratamendu horren xedea deialdi hau kudeatzea eta ebaztea izango da; hots, interes publikoan eta parte-hartzeko eskaeran oinarritutako xedea.

Interesdunek datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko eta transferitzeko eskubideak baliatu ahal izango dituzte, bai eta datuok tratatzeko mugak edo aurka egiteko eskubideak ere. Horretarako, idatzizko jakinarazpena bidali beharko dute Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritzara (Donostia kalea 1, 01010 VITORIA-GASTEIZ).

Era berean, deialdi honetan parte hartzen duten lagunek baimena ematen diote Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritzari beste erakunde publiko batzuetan egiazta dezan aurkeztutako dokumentuak egiazkoak direla.

Vitoria-Gasteiz, sinaduraren egunean

Begoña Pedrosa Lobato
Hezkuntzako sailburuordea



I. eranskina

Eskabidea

IKASTETXEAREN KODEA

--	--	--	--	--	--	--

.....jauna/andrea NAN
zenbakiduna, ikastetxeko
zuzendaria

Ikastetxearen hizkuntza-proiektuan, B modalitatean, 2023/2024 ikasturterako islatutako planifikazio-datuen laburpena

	LEHEN HEZKUNTZA	BIGARREN HEZKUNTZA
Ikastetxeko ikasle taldeen guztizko kopurua		
Proiektuan parte hartzen duten ikasle taldeen guztizko kopurua		
Irakasleen guztizko kopurua		
2023-2024 ikasturtean proiektuan parte hartuko duten irakasleen kopurua		
Atzerriko hizkuntzan B2 mailako titulazioa edo goragokoa ziurtatu duten irakasleen kopurua		
Atzerriko hizkuntzaren bat (ingelesa, frantsesa, alemana...) irakasgai gisa ematen duten irakasleen kopurua		
Irakasgairen bat atzerriko hizkuntzan ematen duten irakasleen kopurua (aurreko atalekoak kanpoan utzita)		

ADIERAZTEN DU:

Ezagutzen dituela alfabetizazio anitzei buruz ingelesezko berariazko prestakuntzen “*Pluriliteracies for Deeper Learning*” ikastaroan parte hartu nahi duten irakasleentzako baldintzak, hizkuntzen eta beste arlo batzuen irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuak hobetzeko ingelesez. Horretarako, **proposatzen du parte har dezatela** bere ikastetxeko irakasle hauek:

TITULARRAK					
Proposatutako irakasleak				B modalitateko hizkuntza-proiektuan esleitutako zereginak	Atzerriko hizkuntzaren maila edo ziurtagiria (ingelesa)
Ordena	NAN	Izena	Abizenak		
1					
ERRESERBA					
1					

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

- Jarduera honetarako proposatutako irakasleek ezagutzen dute eta baimena ematen dute Hezkuntza Sailak eta Edinburgoko Unibertsitateak antolatutako alfabetizazio anitzen inguruko prestakuntza ikastaroan parte hartzeko.

**II. ERANSKINA****Irakasleen parte-hartzearen baldintzak**

(Orri bat bete proposatutako partaide bakoitzeko eta islatutako merituen ziurtagiriak erantsi, egiaztatu gabeko merezimenduak ezin izango dira baloratu)

NAN	Izena	Abizenak

1.- Ingeleseko titulua:

.....

2.- Hizkuntzen irakaskuntza koordinatu duen ikasturteak eta ikastetxeak:

.....

3.- Hizkuntzen irakaskuntzan parte hartu duen ikasturteak eta ikastetxeak:

.....

4.- Ikastetxeko hizkuntza-proiektua B modalitatean koordinatu duen ikasturteak eta ikastetxeak:

.....

5.- Ikastetxeko hizkuntza-proiektua B modalitatean parte hartu duen ikasturteak eta ikastetxeak:

.....

6.- Nazioarteko proiektuak koordinatu dituen ikasturteak eta ikastetxeak:

.....

7.- Nazioarteko proiektuetan parte hartu duen ikasturteak eta ikastetxeak:

.....

8.- Hizkuntzen irakaskuntzari eta ikaskuntzari buruzko argitalpenak eta materialak:

.....

9.- Gaiari buruzko honako prestakuntza hauetan parte hartu du:

.....

10.- Zuzendaritza-taldean egindako ikasturteak, ikastetxeak eta karguak:

.....

11.- B modalitatean ingelesez ematen duen irakasgaia, diziplina edo edukia:

.....



III. ERANSKINA

Erantzukizunpeko adierazpena eta konpromisoak beregain hartzea

NAN	Izena	Abizenak
ZENTROA:		

Onartzen dut Edinburgoko Unibertsitateak alfabetizazio anitzei buruz ingelesez emango duen “*Pluriliteracies for Deeper Learning*” berariazko prestakuntzan parte hartzeko ikastetxeen eta irakasleen hautaketa-deialdian parte hartzea, hizkuntzen eta beste arlo batzuen irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuak hobetzeko ingelesez.

Era berean, hautatu ondoren prestakuntzan parte hartuko banu, konpromiso hauek hartzen ditut:

- Curriculum-edukiak edo arloak ingelesez ematea.
- Ikastetxearen proiektu eleaniztuna koordinatzekoa, zentroak hala eskatuz gero.
- Ikastaroan ikasitakoa nire praktika profesionalean ezartzekoa eta, Hezkuntza Sailatik hala proposatuz gero, beste zentroren baten mentore izatekoa.
- Hezkuntza Sailaren esku jartzekoa nire ikastetxerako egindako material didaktikoak, Hezkuntza Sailak aukeratutako bitartekoan argitaratu ahal izateko.
- Hezkuntza Sailak gaiari buruz antolatutako prestakuntza-saioretan parte hartzekoa eta nire esperientzia eta/edo egindako materialak partekatzeko prest egotekoa.
- Prestakuntza-jardueraren etapa guztietan aktiboki parte hartzea, dagozkion zereginak burutuz.

.....ren(e)an 2023

Izpta.:



IV. eranskina

Eskaeren balorazio teknikoa egiteko baremoa

	Gehieneko puntuazioa
1.- Ikastetxea ikastetxeko hizkuntza-proiektuan, B modalitatean, parte hartzeko hautatu den ikasturteak. Parte hartutako ikasturte bakoitzeko puntu 1 emango zaio.	5
2.- Proposatutako irakasleak Eleaniztasunerantz programaren koordinatzaile izan dira B modalitatean. Koordinatutako ikasturte bakoitzeko puntu 1 emango zaie.	3
3.- Proposatutako irakasleek atzerriko hizkuntzan eman dituzte edukiak. Emandako ikasturte bakoitzeko puntu 1 emango zaie.	3
4.- Proposatutako irakasleek nazioarteko proiektuak koordinatu dituzte. Koordinatutako proiektu bakoitzeko puntu 1 emango zaie.	3
5.- Proposatutako irakasleek nazioarteko proiektuetan parte hartu dute. Parte hartutako proiektu bakoitzeko puntu 1 emango zaie.	2
6.- Proposatutako irakasleek ikastetxeko hizkuntza-proiektuarekin zerikusia duten prestakuntzetan hartu dute parte. Parte hartu duen 10 orduko edo hortik gorako prestakuntza bakoitzeko puntu 1 emango zaie.	2
7.- Proposatutako irakasleak EEEBren C2 mailaren pareko titulazioa du.	3
8.- Proposatutako irakasleak EEEBren C1 mailaren pareko titulazioa du.	2
9.- Proposatutako irakasleak "English for Better Teaching" prestakuntzan parte hartu du eta gainditu du.	1
Guztizko puntuazioa	24



V. ERANSKINA

Ikastaroaren ezaugarriak

Prestakuntza jarduera honen partehartzaileei aukera eskaintzen zaie Pluriliteracies for deeper learning eredu sakonki ezagutzeko, eta gelan duen aplikazio praktikoaz hausnarketa egiteko. Halaber, gelan duten eskuhartzearen inguruko gogoeta sistematizatua egingo dute.

Prestakuntza-ekintza hau amaitzean, parte-hartzaileek:

- Arlo honetako ikerketa berrien azken ondorioei eta proposamenei buruzko ezagutza sakona lortuko dute.
- Ikasgelako praktikan ikaskuntza sakona sortzen duten estrategiak barne hartzen dituen eredu bat aplikatu ahal izango dituzte.
- Ikasgelan ikasleekin egingo dituzten zereginetan eta praktiketan eskuratutako ezagutzak aplikatu ahal izango dituzte.
- Materialak eta eredu gisa erabil daitezkeen beste proposamen batzuk trukatu eta egokitzeko eta ikasgelen beharretara egokitzeko gai izango dira.
- Irakasle gisa duten progresioa monitorizatzen ikasgelan ikerketa-ereduak aplikatuz prestakuntza-ebaluazioko prozesuen bidez ikasiko dute.

Laburbilduz, prestakuntza-jarduera honek parte hartzen duten irakasleak ahaldunduko ditu beren gaitasun profesionalak garatzean, hezkuntza-paradigmaren aldaketaren erronkei erantzuteko, ikasgelako oinarritzko ikaskuntzak eta ikerketa-prozesuak eskuratzean, pentsamendu kritikoa garatzean, sormenean, lankidetzan, alfabetizazio digitalean eta pertsonen arteko komunikazioan oinarrituz.

Metodologiak eredu pedagogikoari, lan praktikoei eta aldizkako tutoretzei buruzko sarrera bat izango du.

- CLIL eredu Askotariko Alfabetizazioekin lotzen duen ereduaren aurkezpena.
- Jarduera praktikoak, ikasgelarako materialen ekoizpena eta baliabideen trukea.
- Horren praktikari eta ebaluazioari buruzko hausnarketa sistematikoa, parte-hartzaileek ikasitakoa ikastetxeko eta ikasgelako testuinguruan aplikatzeko aukera izango duten jarduera eta atazekin.

Prestakuntza-jardueran zehar, parte-hartzaileek honako hauek egin beharko dituzte:

- Prestakuntza-moduluak osatzea, edukia eta prozesua ebaluatzea eta zereginak aurkeztea, tutoreak ezarriko duen egutegiaren arabera.
- Prestakuntza-jardueran parte hartzen duten beste batzuekin lankidetzan aritzea, eskatzen diren zereginetan.
- Proposatuko diren jarduerak, zereginak eta proiektuak egiteko tresna digitalak erabiltzea, foro komunera beren gogoetak eta iradokizunak ekarri eta, era berean, baliabideen banku partekatua sortzen lagunduz.
- Norberaren ikaskuntza-prozesuari buruz hausnartzea eta ikasitakoaren aplikazioari buruzko ebaluazio pertsonala egitea.



- Prestakuntza-jardueran aktiboki parte hartzea, beharrezko laguntza eskatuz eta gogoeta partekatua egiten lagunduz.
- Ikasitakoa irakaskuntza-testuinguruan aplikatzea.

PRESTAKUNTZA-EGUTEGIA

Jarduera	Egutegia	Dedikazioa	Xehetasunak
Bilera	Maiatzean /ekainean	2 ordu	Programa ezagutzeko hasierako bilera
Jardunaldia	Ekainaren 27a	5 ordu	Pluriliteracies for deeper learning topaketa
10 eguneko egoitza-programa Edinburgoko Unibertsitatean. PTDL model ereduari buruzko prestakuntza eta hura ikasgelan ezartzea, unitate didaktiko bat diseinatuz. Bisitak ikastetxeetara.	10 egun Abuztuaren 28tik irailaren 8ra	4 ordu eguneko 40 ordu guztira	1. astea: astelehenetik asteazkenera, parte-hartzaileen esperientzian, beharretan eta itxaropenetan oinarrituko gara PTDL eredu deskribatzeko. Programaren bideratzaileek ekarpen batzuk egin ondoren, parte-hartzaileek banakako eta lankidetzako jarduerak osatuko dituzte, beren praktiken eta ereduaren artean loturak ezartzen laguntzeko. Programa osoan zehar portafolio bat mantentzeko ere eskatuko zaie. 2. astea: parte-hartzaileek beren ikasgeletan PTDL eredu ezartzera bideratutako jarduera praktikoetan parte hartuko dute. Unitate didaktikoak eta materialak diseinatuko dituzte. Era berean, parte-hartzaileek ikerketa-ekintza bat diseinatu eta gauzatu ahal izateko jarduerak egingo dira (AR proiektuak bi ziklo ditu, lehen hiruhilekoan ziklo bat eta bigarren hiruhilekoan ziklo bat), ikasgelarako prestatu dituzten unitate didaktikoak inplementatu ahal.
Online euskarriko lau saio lehenengo ikerketa-zikloan. (Ar Cycle 1)	Hilean saio bat urrian, azaroan, urtarrilean eta otsailean.	2 ordu saioko 8 ordu guztira	Saio bakoitza (on line Teams/Zoom bidez) pertsonek beren ikerketari eta PTDLn oinarritutako unitate didaktikoei buruzko aurrerapenak, kezak eta ideiak partekatze gune bat izango da. Jarraipen-jarduerak ere egingo dira: on line foroak, hausnarketa sustatzeko, ezagutzak elkarrekin sortzeko eta erabakiak hartzeko
Bigarren ikerketa-zikloa prestatzeko online saio bat (AR Cycle 2).	Saio bat martxoan	2 ordu 2 ordu guztira	Saio honetan (on line Teams/Zoom bidez) parte-hartzaileek lehen ikerketa-zikloaren balantzea egingo dute eta bigarren zikloa diseinatuko dute. Era berean, PTDL eredu praktikan jartzeak bere garapen profesionalean nola lagun dezakeen hausnartuko dugu.
On line euskarriko hiru saio bigarren ikerketa-zikloan (AR Cycle 2).	Hileko saio bat apirilean, maiatzean eta ekainean.	1 ordu saioko 3 ordu guztira	Apirileko eta maiatzeko online saioak parte-hartzaileek beren ikerketari eta PTDLn oinarritutako unitate didaktikoei buruzko aurrerapenak, kezak eta ideiak partekatze gunea izango dira. Jarraipen-jarduerak ere egingo dira, hala nola on line foroak, haien ezagutza profesionalari buruz hausnartzeko, eta PTDL eredu hartzeak eta egokitzeak ikasgelara ekar ditzakeen aukerei eta mugei buruz hausnartzeko. Ekaineko saioa parte-hartzaileak minikonferentziarako prestatzea izango da (ikus beherago). Programa ebaluatzeko tarte bat ere egongo da.
Azken jardunaldia Euskadin Edinburgoko tutoreekin, gure irakasleen aurkezpenekin, tailerrekin eta ponentziaren batekin..	2 egun ekainean edo uztailen (2024)	4 ordu eguneko 8 ordu guztira	Egun bakoitzean, programako bideratzaileen eta parte-hartzaileen aurkezpen laburrak izango dira. Parte-hartzaileek Ikerketa Ekintzako proiektuak eta portafolioak partekatuko dituzte. Hausnarketarako eta harreman profesionalak sortzeko tarte ere egongo da.
		61 ordu guztira	